

## **Euzkadiren lurraldea**

*Deia, 1977-07-28.*

Euzkadiko parlamentariak antolatu dute Autonomiaren arazoak aztertu eta erabakitzeke batzordea. Batzorde hau bildu da. Eta aurrean dituzten hiru puntu nagusietatik lehenengoa, Euzkadiko lurraldearen mugak erabakitzea da.

Noski, Estatukoak zer-nolako erakundeak izango dituen jakin aurretik, jakin behar da aurretiko hau.

Hemen gertatzen dena da, mugaz honuzko lau herrialdeek ez dutela horien artean inolako loturarik, lotura ofizialik. Badituzte, noski, hartuemanak maila batzuetan, Merkataritzako Kamara mailan eta abar, baina ez da ofizialki, ez eta Unibertsitate edo Justizia mailan lau herrialde euskaldunak lotzen dituen erakunderik.

Hau, noski, kontu handiarekin alderatu du Estatu espainolak.

Baina orain, Autonomiaren arazoa berehala erabakitzeke asmotan lanean hasi direnean, gure ordezkariak ABC honetatik hasi behar dute lanean.

Hemen, egitazko arazoa, Napparroarena da.

Ez dira hain ezagunak ditugun argudioak bakarrik: herritasun bera, kultura bera, historian zehar elkarrekin izan dituzten lotura estuak bakarrik.

Bada hemen gaurkotasuna duten beste argudio asko ere, eta kontuan eukitzen bidezko da:

1.- Napparroa, lurraldez, nahiko handia da, mugaz honuzko beste hirurak baino handiagoa, baina demografiaz ez du gaurko errejio batek eskatzen duen neurririk.

2.- Ekonomi aldetik ere ez du hain beharrezko duen industri-estrukturarik.

Egia zera da: Napparroak beste anaiak behar dituela, eta horiek Napparroaren beharrean direla.

Naparren kezka, eta batzuen argudio paltsoa, itsas-ertzeko bi industrializatuen menpean erortzeko arriskua da. Baina jakina da Euzkadi politiko baten sorrera zer kondiziotan onartuko litzateken: konfederazio modura eratuko litzateke, eta herrialde bakoitzak bere eta sustraiezko dituen erakunde politikoak gordetzeko baldintzapean izango litzateke.

Eskualde eskuek osatuko dute Euzkadi aske bat.